

## HISTORIA NOLA KONTATZEN DEN

Alba Garmendia Castañós

Testu honetan arreta jarriko zaio historia kontatzeko moduari: nola eraikitzen den historiaren kontakizuna, nondik, nork eta, batez ere, zer ekar dezakeen horrek. Joxe Azurmendi Otaegi hartuz alde batetik, eta Michael Hardt eta Antonio Negri bestetik, historia kontatzeko garaian aldeak egon daitezkeela ikusiko da, eta loturak egingo dira, noski, kolono eta natibo amerikarren errelato historikoekin.

Lehenengo, historia botereguneetatik pentsatzeak eta eraikitzeak inplika dezakeena ikusiko da, Azurmendiren begietatik. Bigarrenik, erresistentzia-mugimenduetatik eraikitako historiak ekar dezakeena azalduko da, Hardt eta Negri lagun. Izan ere, Azurmendiri ikasi diogunez, ia mitikoak diren arbasoenganaino eraiki daiteke monarka baten genealogia, haren boterearen justifikazioaren erakusle. Hardt eta Negri jarraitzen badiegu, berriz, genealogia alternatiboak eraikitzea botere horietatik askatzeko bidea izan daitekeela irakurtzen dugu. Hor aurkitzen da testu honen helburua: genealogiaren, historiaren asmakuntzaren inguruan eta haren ondorioei buruz hausnartzea, nola eraikitzen eta justifikatzen diren botereak eta erresistentziak eta zer esan nahi duen horrek guztiak.

### HISTORIAREN KONTAKIZUNAK, BOTEREGUNEETATIK

*Eta iraganaz zein nola jabetu, hor dago gerra. (Azurmendi, 2018, 98 orr.)*

Azurmendiren “Historia ez da ikusten, asmatu egiten da” artikulua irakurria izatea gomendatzen da testu honetan murgildu baino lehen. Bertan azaltzen dira, besteak beste, historiaren izaera asmatua, mitoen erabilera nazionala –edo nazionalista–, boterearen justifikazioa...

Jarraian, Azurmendiren artikuluari (bereziki, 84-94 orriak) iruzkin motz bat egingo zaio eta, horren segidan, Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioen adibidearen bidez hausnartuko da ea betiko mitoek historia alternatiboak, boteregune kolonizatzaileetatik eraikiak ez direnak, pentsatzeko balio ote dezakeen.

### Mito nazional(ista) europarra (Azurmendi)

Azurmendiren artikuluan ikusten da, adibidez, herri guztiek dituztela beraien mitoak, nazioaren jatorria kontatzen dutenak. “Herri guztiek dute beren nobletasuna eta harrotasuna, beren ‘mitoa’ (adiera negatibo batere gabe ulertuta)” (Azurmendi, 2018, 90 or.), dio. Hain justu, gizatalde bati hori bera ematen dio mitoak, taldetasunaren zentzu bat, nazio-, komunitate-, herri-izaera bat. Eta normala da, ohikoa, –nazio europarretan, gutxienez– komunitateari zentzua eta batasuna ematen dion istorioaren eraikuntza.

Azurmendiren testuetan gertatu ohi denez, artikulua helburua ez da bere horretan mito nazionalaren eraikuntza eta erabilera goratzea edo gaitzestea, baizik eta erakustea mitoa hor dagoela, egon, nazio orotan, berdin Israelen, Espainian zein Euskal Herrian. Hau da, ez da

bereizketarik egiten Tubalen mito euskaldunaren eta Espainiako errege Karlos V.aren genealogia berdin mitiko eta nazionalistaren artean. Ez lehena goratzen du Azurmendik, ez bigarrena gaitzesten; garaiaren isla baino ez baitira biak ere, Europa modernoko mito ustez arrazional eta unibertsalak.

Horrek ez du esan nahi, dena den, bestelako inplikaziorik ez dutenik kontakizunok. Azurmendik ere esaten du, Karlos V.a irudikatu zuten Tizianoren margolanaz eta Leone Leoniren eskulturez ari delarik, adibidez (2018, 87 or.): “Arteak (...) genealogia mitikoen funtzio bera betetzen du: Boterea jainkotzea.” Beraz, Europa modernoko mito nazional(ista) ustez arrazional eta unibertsal haiek boterearen nolabaiteko justifikazio dira, haren “jainkotzea” –edo halabeharrezkotasuna, autoritatea, ontasuna, transzendentzia...– dakartenez gero. Genealogiaren mitoak, orduan, baita mitorik unibertsalenak ere, botere konkretuak eta partikularrak esplikatzeko eta justifikatzeko balio du.

Are gehiago, ez da edozein botere mito nazional(ista) europarretan indartzen dena. “[H]andikeriaren, dominazioaren mitoa” da nazio europarren historia kontatzen duten errelatoen oinarrian dagoen mitoa Azurmendiren ustez (2018, 91 or.), bat eta berbera guztientzat. Beste modu batean esanda, mito horiek ez dira istorio erromantiko baliogabeak, ezta kontakizun atsegin-onberak ere, huts-hutsean. “[M]onarkia modernoak eta Estatu territorialak bezain klasikoak dira [kontuok]”, dio Azurmendik (2018, 91 or.). Parafrasia onartzen bada, mitook monarkia modernoan eta Estatu territorialen funtsezko elementu direla ere esan liteke, haien izatearen zentzua ematen dutelako.

Horrek guztiak esan nahi du nazioaren genealogia egiten duen mitoa kontatzen denean ez dela bestelako eraginik ez duen ipuin bat kontatzen, nazio baten historia bat, orainaldi bat eta, seguruenik, etorkizun bat ere elikatzen direla baizik. Hausnarketa bere kabuz dator oraingoan: Ze ipuin kontatu nahi dugu? Zein kontatu dugu –eta kontatu digute– orain arte? Ze boteregune elikatu ditugu bidean?...

Ohar bat eskatzen dute agian azken galdera horiek. Kontatu nahi den edo kontatu diguten mito nazional(ist)aren inguruan hausnartzera gonbidatzen denean irakurlea, asmoa ez da mitorik onena bilatzera bultzatzea, ezta zuzenean ondorioztatzea ere mitoak mundu globalizatuan zentzua galdu duela. Ez da estrategia politikoa pentsatzea proposatzen, ezta posizio (ez)nazionalista aukeratzea ere, ezpada hausnarketa filosofikoagoa: Zer esaten digu gaur eraikuntza historikoaren auziak? Zein dira gure Karlos V.ak eta Tizianoak?, nor gure osaba Noe? Ze botere jainkotzen dugu guk?

---

## Betiko mitoak historia alternatiboak kontatzeko?

Nazio indigenak ere baditu bere mitoak. Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioetan irakur daitezke horietako batzuk (Estes, 2018, 99 or.), indigenen arbasoen eta naturarekiko lotura

---

---

goiztiarraren berri ematen dutenak. Horiek ere badira, Azurmendiren hausnarketei jarraituz, nazioa egiteko eta boterea –esan gabe doa, botere indigena– jainkotzeko mitoak.

Estesek arreta beste nonbait jartzen du, ordea. Esan berri dena ukatu gabe, Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioek kolonoen kontakizunaren historia alternatibo bat erakutsi dezakete. Hori da, behintzat, Estesek dioena (2018, 99 or.): kolonoek kontaktutako historiaren arabera, Oceti Sakowin jendeak esaten dutena baino beranduago iritsi ziren Missouri ibaiaren mendebaldera eta “bortizkeriaz kanporatu zituzten beste nazio indigena batzuk”. Baina, beraien sorrera-istorioei erreparatuta, kolonoen bertsioa “kontraesanean” gelditzen dela dio Estesek (idem).

Izan ere, badirudi sorrera-istorio guztietan inguru geografiko berberari egiten zaiola erreferentzia (Missouri ibaiaren inguruari, ulertzen da) eta Oceti Sakowin jendeek gainerako indigenekin harreman onak zituztela ere esaten dela kontakizunotan. Hala, bada, sorrera-istorioen mitoetan kontaktzen dena kontraesanean dago kolonoen kontakizunarekin, bai Oceti Sakowin jendeak Missouri ibaira iritsi ziren garaiari dagokionez, bai gainerako indigenekin zuten harremana dela-eta.

Esan gabe doa mitoetan kontaktzen dena ez dela historia objektiboaren kontakizun dudarik gabe egiazkoa. Alde horretatik, ezin esan daiteke Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioetan kontaktzen dena hitzez hitz gertatu zenik. “Faltsifikazioak ote dira, orduan, mito hauek?”, galdetzen du Azurmendik (2018, 92 or.). “Ez: legendazko materialen azpian esperientzia historikoaren egia dago, dio Freudek. Bakarrik, irakurtzen eta entenditzen jakin behar” (idem). Irakurtzeko eta entenditzeko modu bat izan daiteke kolonoen historiaren kontakizuna eta Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioak parez pare jartzea. Balio ote dezake betiko mitoak (sorrera-istorioa) kolonoen kontakizunari historiaren errelato alternatibo bat eskaintzeko?

---

Laburbilduz, esan daiteke Azurmendiren testua irakurrita historiaren asmakuntzaren funtzioa ikusten dela. Monarkaren zein nazioaren arbaso mitikoen kontakizunak zentzua ematen dio komunitate garaikideari, familia-lotura historiko bat. Eta lotura horiek, historikoak, mitikoak, transzendentek... direnez gero, irautera egiten dugu gizakiok. Horrek esan nahi du, orduan, mito nazionalak estatua irauarazten duela, eta iraganak etorkizuna egiten duela.

## HISTORIAREN KONTAKIZUNAK, ERRESISTENTZIATIK

(...) [O]roz gain, bisioak erakusten zuen bizitzak ez zuela zertan beti hala izan. (Estes, 2019, 159 orr.)

Datozen orrietan Hardten eta Negriren ekarpenen berri emango da; zehazki, erresistentzia-mugimenduen genealogiaren berri. 1970etik 2011ra bitartean bere burua gobernatzeko gai diren mugimenduen eta taldeen segida bat ekarri da, egileek eurek emandako adibideen bitartez.<sup>1</sup> Azken puntuan, Mamu Dantzen adibidearen laguntzaz, iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura posibleaz galdegingo da, historiaren eraikuntzak etorkizunaren irudikapenekin izan ditzakeen loturei buruz galdetzeko asmoz.

Hasteko, esan behar da Hardtek eta Negrik ez dutela Azurmendiren moduko interpretaziorik egiten mito nazional(ista)ren inguruan;<sup>2</sup> bai, ordea, genealogiaz. Hain zuzen ere, Hardtek eta Negrik genealogia alternatiboak eraikitzeke beharra azpimarratzen dute, erresistentzia-mugimenduen historia birkontatzearekin batera historia eta etorkizun alternatiboak irudikatzeke. Ideia horri lotzen zaio Oceti Sakowin jendeen sorrera-istorioen gaia ere, aurreko atalean kontatu berri dena: mitoaz zer esango luketen ez dakigu, baina, Hardten eta Negriren teoriaren arabera, natibo amerikarren erresistentzia-mugimenduen genealogia egiteak balioko luke kolonoen kontakizunari historia alternatibo bat eskaintzeko.<sup>3</sup>

Azken batean, atal honen helburua da Azurmendik emandako historiaren asmakuntzaren eta mitoaren funtzioaren azalpena Hardten eta Negriren irakurketarekin alderatzea. Azurmendik azaltzen du historia nola erabil daitekeen botereguneak justifikatzeko; bada, Hardten eta

---

<sup>1</sup> Hardten eta Negriren teoriaren sintesia egilearen doktorego tesitik informazioa jasoz eta egokituz egin da, batez ere. Informazio gehiagorako, kontsulta bedi tesia bera: Garmendia Castaños, A. (2021). *Multitudearen utopia Inperio distopikoaren ispilu. Michael Hardten eta Antonio Negriren Empire bildumaren analisia utopiei buruzko ikerketen ikuspegitik*. Donostia, UPV/EHU. <http://hdl.handle.net/10810/55227>

<sup>2</sup> Dena esan behar bada, nazionalismoaren inguruko iritzi ezkor samarra dute Hardtek eta Negrik (2000, 93-113 or.). Nazionalismoa estaturik izan ez baina nahi duten herriekin lotzen dute, batez ere. Mugimendu nazionalisten kritika egiten dute, orduan, “herriaren” edo “nazio-estatuaren” kritika egiten duten zentzu berean: identitate –nazional– bat bakarra inposatzen zaiolako bestela askotarikoa litzatekeen gizataldeari. Oraindik estaturik ez duten mugimendu nazionalisten kasuan ikusten dute bulkada desiragarririk, ordea, nazio-estatu eratuaren aurkako mugimendua den heinean ordena nazional(ist)a zalantzan jartzen dutelako (idem, 105-109 or.).

<sup>3</sup> Historia alternatiboaren, “egin ezin izan den” historiaren ikuspegi bat ematen du Azurmendik berak ere, adibidez, Joseba Sarrionaindia Uribelarrearen *Moroak gara behelaino artean?* liburuari eskainitako artikuluan (2015, 21 or.) edo, hobeto esanda, Sarrionaindiaren nazio kontzeptuaz idatzitakoan. Besteak beste, Sarrionaindiaren eta Walter Benjaminen pentsamendua uztartu zituen Azurmendik bertan eta hausnarketa interesgarriak proposatzen ditu historiari, haren egileei, objektibotasun historikoari eta abarri buruz. Kontsulta bedi Jakin aldizkariaren alea informazio gehiagorako: Azurmendi, J. (2015). Sarrionaindia: nazioaren kontzeptua behelaino artean. *Jakin*, 207, 11-65.

Negriren ekarpenaren bidez erakutsi nahi da historia erresistentzia guneetatik ere eraiki daitekeela eta erresistentzia-mugimenduei zentzua emateko erabil daitekeela.

---

Kontakizun historikoaren garrantzia ez da nolana hikoia Estesen liburuan ere. Dela Lewis eta Clarken espedizioa kontatzeko modua (Estes, 2019, 103 or.), dela bufaloen desagertzearen errelatoa (idem, 107-108 or.), genozidioarena (idem, 109 or.), eskoletan indigenen historia beraien ikuspuntutik kontatzearena (idem, 219-220 or.)... Asko dira historia nork eta nola kontatzen duen garrantzitsua dela erakusten duten pasarteak. Estesen kasuan, estatu-botere amerikarretik eraikitako historiaren kontra, indigenen bizipenetatik eta begiradatik eraikitako historia kontatzearen eta irakastearen aldarria ikusten da.

---

## Erresistentzia-mugimenduen genealogia (Hardt eta Negri)

Hardten eta Negreren teoriaren arabera, mundu-ordena garaikidea baino desiragarriagoa litzateke demokrazia absolutura gehien gerturatzen den mundua: bere burua gobernatzeko gai den jendearena, taldearen izenean identitate bat bakarrera mugatzen ez den kolektibitate pluralarena, desberdintasunak errespetatzen diren gizartearena, ordezkari politikorik gabea, estatu-autoritatearen ordezkari asanblea bidez autogobernatzen den komunitatearena... (ikusi ikasgai honetako “Komuna den hori, bioboterea eta biopolitika” testua informazio gehiagorako).

Beraien ustez, modu horretan antolatzeko gai izan da gizakia Modernitatean immanentzia aurkitu zenez geroztik, nahiz eta aukera hori garatu gabeko posibilitate gisa geratu den zintzilik historian. Orduan hasi eta XXI. mendearen lehen hamarkadara iristen den errebaso historikoa egiten dute Hardtek eta Negrik, genealogia bat, beste historia bat izan zitekeela erakusteko eta, batez ere, gaurkoa ez bezalako beste etorkizun bat eraiki daitekeela aldarrikatzeko.

“Immanentziaren aurkikuntzarekin” esparru askotara zabaldu zen fenomeno modernoari egiten diote erreferentzia. Autoritate jainkotiarra eta estatuarena bereizi zituen sekularizazio prozesuaz hitz egiten da askotan, baina erlijioan edo politikan ez ezik, aldaketa paradigmaticoa gertatu zen Modernitatearekin zientzian, teologian, filosofian... Funtsean, dena den, bitartekorik behar ez zuen gizateriaren aurkikuntza da Hardtek eta Negrik immanentziaren kontzeptuarekin azpimarratzen dutena: bere burua goberna dezakeen subjektibitate askearen eta demokratikoaren posibilitatea ezagutu zen Modernitate hasiberrian, boterea jainkotiarra zela zioen sinesmena desegin zenean. Gizakia autonomoa zela –edo izan zitekeela– aurkitu zen.

Orduz geroztik, asko izan dira autonomiaren, norbere burua gobernatzearen berri eman duten erresistentzia-mugimenduak eta subjektibitate berria egikaritzeko saiakerak. Hala kontatzen du, behintzat, Hardten eta Negreren historiak. Jarraian datoz historia hori egiten duten zenbait adibide, guztiak ere autogobernuaren zentzuarekin bat egiten dutenak. Horien guztien ezaugarri komunak dira, esate baterako, taldeak modu horizontalean –ez hierarkikoan– antolatzea, taldearen baitako aniztasuna errespetatzea, funtzionamendu demokratikorako joera izatea...

Azken batean, demokrazia absolutuaren printzipioen arabera antolatutako erresistentzia-mugimenduak dituzte erreferentziazat Hardtek eta Negrik.

### Adibide batzuk

1970-1990 hamarkaden artean, adibidez, antolaketa-modu tradizionalak eta berriak, autogobernutik gertuago daudenak, uztartu izan direla uste dute Hardtek eta Negrik (2004, 83-85 or.). Trantsizio horren adibidetzat dituzte intifada palestinarra (1987 eta 2000), Hegoafrikako apartheidaren aurkako borrokak (1970 erdialdetik 1990era) eta EZLN armada zapatista (1990eko hamarkada).

Antolaketa anibalentea ikusten dute Hardtek eta Negrik, hasteko, intifada palestinarrean (2004, 83-84 or.). Alde batetik, gazteen matxinadetako barne-antolaketa horizontala eta autonomia dela uste dute. Testuinguru lokaletan hasitako matxinada berehala zabaldu zen Gazako eta Zisjordaniako mugara, diote, eta intifadaren hasiera markatu zuten gazte haien ekintzek: poliziaren eta autoritate israeldarren kontrako ekintza zuzenak. Bestalde, kanpo-antolaketa hierarkikoa eta zentralizatua dela uste dute Hardtek eta Negrik, eta erakunde politiko palestinar askotan ikusten dute hori. Intifadan zehar bi antolaketa-moduak uztartu zirela uste dute, eta lehenengoa dute erreferentziazat, noski.

Bikoiztasun berdina nabaritzen dute apartheidaren aurkako borroketan (2004, 84 or.): horizontalki antolatutako ikasleen eta sindikatuen elkarteak hartu-eman etengabea, zenbaitetan tentsiozkoan, egon ziren antolaketa-modu tradizionala zuten taldeekin, hala nola, Afrikako Kongresu Nazionalarekin.

Armada zapatistak, azkenik, are eta argiago erakusten du erresistentzia-mugimenduen antolaketa-modua aldatzen ari dela (2004, 85 or.). Kasu horretan, atentziora ematen du erakundearen antolaketa militar eta hierarkizatuak, diote Hardtek eta Negrik, baina ugariak eta nabarmenak dira, hala ere, antolaketa deszentralizatuaren adibideak: agintea txandakakoa da, Marcos bozeramaile nagusia –bere mendekotasunari erreferentzia eginez– komandanteordea da, ez dute estatua suntsitu eta boterea hartzeko helbururik...

Hiru adibide horietan liderrek gidatutako antolaketa bertikal eta zentralizatua (tradizionala) eta liderrik gabeko antolaketa horizontal eta demokratikoa (autogobernutik gertuago dagoena) uztartu izan zirela diote Hardtek eta Negrik, eta kontuan hartzeko moduko aurrekariak direla uste dute.

Antolaketa-modu horizontalen eta demokratikoen adibide dira, bestetik, 60ko hamarkadaren amaierako eta 70eko hasierako zenbait talde feminista (2017, 9-10 or.) baita identitate-politiken inguruko taldeen antolaketa ere. “Hierarkia zentralizatuaren, liderren eta bozeramaile ofizialen kontra” (2014, 86 or.) dabiltzan mugimenduak direla uste dute Hardtek eta Negrik, eta antolamendu demokratikoagoetarako pausoak eman zituztela, autonomia-aldarrikapena eta taldearen baitako aniztasuna tarteko.

Talde horietan hartutako neurrien artean aipatzen dute, adibidez, bileretara bertaraturako guztiek hitza hartzea ziurtatzen zutela (erabakiak guztien artean hartzeko eta parte-hartzea

bultzatzeko neurri gisa), edo taldearen izenean komunikabideekin hitz egiten zuen unean uneko ordezkariak taldearen baimena behar izatea beti horretarako (liderraren lekua har ez zezan). Hardten eta Negriren ustez, mugimendu horietan guztietan ikusten da barne-pluraltasuna elkarrekin ekiteko gaitasunarekin uztartzeko gaitasuna. Hasieran aipatu bezala, funtsezko ezaugarria da hori bere burua –ordezkaririk gabe– gobernatu nahi duen taldearentzat.

90eko hamarkadako erresistentzia-zikloak dira erresistentzia-mugimenduen adibide esanguratsuenetakoa: globalizazioaren aurkako mugimenduak (1999an Seattlen, 2001ean Genovan) eta beste globalizazio baten aldeko aldarria egiten duten Munduko Foro Sozialak (2001ean Porto Alegren, 2004an Mumbain) (Hardt eta Negri, 2004, 86-87 or.). Taldearen baitako desberdintasunak gorabehera, Hardten eta Negriren ustez “etsai partekatu” bat izateak eman zieten taldetasun izaera mugimenduei (“dela neoliberalismoa, hegemonia estatubatuarra edo Inperio globala”) baita “praktika, hizkuntza, portaera, ohitura, bizimodu eta etorkizun hobe baten desira partekatua” izateak ere (2004, 215 or.). Beste behin, mugimenduaren baitako desberdintasunen gainera (talde ekologistak, sindikalistak, anarkistak, erlijiosoak, gay-lesbiana kolektiboak... batzen ditu globalizazioaren kontrako borroka) elkarrekin ekiteko gaitasuna gailendu izana azpimarratzen dute Hardtek eta Negriak.

Bestalde, talde horien sare itxurako antolaketa ere nabarmentzen dute, autoritate bakar baten lidergorik gabe, mundu-ordena berriari erantzuteko moduko egitura ikusten baitiete. Mugimenduaren aniztasuna eta horizontaltasuna dira Hardt eta Negriren seinatzea interesatzen zaien beste puntua, beraz, sare formako antolaketa baino ez dena, azken batean: adabegiek, elkarrekiko desberdinak izan arren, elkarri lotzeko eta batera aritzeko gaitasuna erakusten dute, lidergo bertikalen beharrik gabe.

Adibide bat gehiago da “Tute Bianche” (Jantzi Zuriak, 1994-2001)<sup>4</sup> mugimendu italiarra, 1990eko hamarkadan aro aldatetari ongien erantzun zion mugimenduetako bat, Hardten eta Negriren arabera (2004, 264-267). 70eko hamarkadan zentro sozial alternatiboak sortu ziren Italian, abandonatutako eraikinetan, eta bi hamarkada beranduago zentro horien baitatik sortu zen “Tute Bianche”. Lan-paradigma berria karakterizatzeko gai izan zen mugimendua, Hardten eta Negriren ustez, “post-Fordismoko lan tipikoa, aldakorra, malgua, prekariora” (2004, 265 or.) irudikatu baitzuten Jantzi Zuriak:

Langile ‘ikusezinak’ zirela aldarrikatzen zuten, kontratu finkorik ez zuten gero, ez segurtasunik, ez identifikaziorako oinarririk. Jantziaren zurtasunak ikusezintasun hori irudikatu nahi zuten. Eta beraien lanaren ezaugarri zen ikusezintasun hori iritsiko zen mugimenduaren indarra izatera. (2004, 265 or.)

---

<sup>4</sup> Tute Bianchek bat-batean sortuak ziruditen manifestazioak antolatzen zituen langile berrien prekarizazioaren kontra. *Rave* festak antolatzeagatik ere egin ziren ezagun (horiek ere itsumustuan sortzen zirela zirudien), baita poliziaren errepresioari haiek ironikoki imitatuz erantzuteagatik ere. EZLN mugimendu zapatistarekin harremanetan egon zen. Genovako goi-bileraren kontrako manifestazioen ondoren desegin zen taldea.

Tute Bianche aipatzearen garrantzia aro aldaketari erantzuteko gaitasunean datza. Hardtek eta Negrik diotenez, hain zuzen ere, “lan-forma berrientzako adierazpen-forma berri bat sortzea lortu zuten –beraien sare-antolaketa, beraien mugikortasun espaziala eta denbora-malgutasuna– eta lan-forma berriak botere-sistema global berriaren kontrako indar politikoa koherente gisa antolatzea lortu zuten” (2004, 267 or.). Autogobernu garaikiderako saihestu ezin diren giltzarrietako batzuk erakutsi zituen, nonbait, Tute Bianchek.

Azkenik, 2011ko kanpaldien adibideak aipatzen dituzte Hardtek eta Negrik erresistentzia-mugimenduen genealogia orain artean isteko (azken lana, *Assembly*, 2017an argitaratu zuten). 2011ko urte horretan zehar antzeko protesta-mugimenduak sortu ziren hainbat herrialdetan eta, Hardten eta Negriren arabera, aldarrikapenak berak eta aldarriak egiteko moduak elkarren artean lotzen zituzten bestela testuinguru jakinekin identifikatutako mugimenduak. 2010eko abenduaren 17an Bouazizik bere burua erre zuenetik hasita 2011ko irailaren 17an New Yorkeko Zuccotti parkea okupatu zen arte, erresistentzia-olatu global berria sortu zela diote (Hardt eta Negri, 2012).

Lekuan lekuko testuinguruetara eta beharretara egokitutako mugimenduak izanda ere, Hardtek eta Negrik (2012) azpimarratzen dutena da protesta-molde eta aldarri bertsuak partekatzen zituztela mugimenduok: kanpaldiak egitea, lider jakinik gabeko mugimenduak izatea, aldarri demokratikoak izatea oinarri... Hau da, mugimenduaren baitako desberdintasunak mantendu arren antolatzeko gai izan ziren eta kanpaldi batetik bestera izaera, espiritu partekatu bat mantentzen zen, beraien ustez. Bestetik, mugimendu horizontalak izan zirela nabarmentzen dute, liderrik gabekoak. Hardten eta Negriren begiradatik, beraz, mugimenduak beraien kasa antolatzen ziren, subiranotasun-mekanismorik eta ordezkaritarik gabe eta interes desberdinak zituzten taldekide askotarikoen artean.

Kanpaldien potentzial handienetakoa, gainera, denboraz jabetzeko gaitasunean ikusten dute Hardtek eta Negrik. Diotenez (2012), 2011ko zikloaren ezaugarrietako bat izan zen mugimenduek eurek kudeatzen zutela protesten denbora, hasiera eta bukaera jakinak dituen manifestazio bat izan beharrean (globalizazioaren kontrako mugimenduak goi-bilera internazionalen erritmorik antolatzen ziren, adibidez). 2011ko kanpaldien agenda ez zetorren kanpotik ezarrita, protestarien erabakia zen haien iraupena ere.

Partekatutako denbora horretan guztian subjektibitate berriak sor daitezkeela ere uste dute Hardtek eta Negrik, eta hor dagoela, noski, aro berriko erresistentzia-mugimenduen muina. Kanpaldietan afektuak sortzen dira, asanbleetan jakintza partekatzen da, lankidetzaren eta elkar zaintzaren bidez erantzuten zaio egoera zaugarriari... (2012). Kanpaldiek bizitzeko modu berriak, subjektibitate berriak praktikan jartzeko bidea eman zutela uste dute.

---

Kanpaldien adibide garaikideenetakoa aurkitzen da Estesén liburuko lehenengo kapituluan. Nabarmena da lotura Hardten eta Negriren 2011ko kanpaldien analisiarekin: oraingoan ere, elkarren artean desberdinak ziren taldeak batera aritzeko eta bizitzeko gai izan ziren, “300etik

---



---

gora nazio indigenen banderak” zeuden sarreran (Estes, 2019, 85 or.);<sup>5</sup> erabakiak adinekoen kontseiluen bidez hartzen ziren, natibo amerikarren antolamenduari jarraiki (idem, 86 or.); elkar zaintzen zen komunitatea eraiki zen ezerezetik (idem, 86-87, 93 or.); bizimodu indigena mantendu zen, adibidez, erabakiak hartzeko prozeduretan (idem, 86 or.) edota “askapenerako hezkuntza antikoloniala eskaintzen zuen” eskoletan (idem, 87-88 or.); erresistentzia-modu alternatiboetan trebatu ziren, “ekintza zuzen ez-bortitzak gauzatzeko entrenamendu[etan]” (idem, 88 or.) zein lege-laguntza oinarritzak jasoz eta emanez (idem)... Funtsean, esan daiteke subjektibitate politiko eta bizitzeko modu berri bat sortu zirela Standing Rockeko kanpalekuan, oliobidearen eraikuntzari erresistentzia egin bitartean.

---

Hardten eta Negriren ustez, kanpalekuak ez dira, bere horretan, imitatu beharreko ereduak, baina “asanblea bihurtzen ari den horren lehen adierazle badira. Ereduen orde, asanblea horiek parte hartzeko eta erabakiak hartzeko modu demokratiko berriekiko hazten ari den desira politikoaren sintoma gisa ulertu beharko lirateke” (Hardt eta Negri, 2017, 293 or.). Hau da, kanpaldiek –eta aipatutako gainerako adibideek, hots, genealogiak– subjektu politiko berri baten posibilitatea erakusten dute. Hardt eta Negri esatera datoz badaudela aurrekariak historian eta askotarikoak direla horiek, nork bere testuinguruari erantzunez jardun dutelako; gatozen geureari ekitera. Mundu-ordena berriari erantzun diezaiokeen subjektua baita Hardtek eta Negri genealogia horri jarraiki sortzear ikusten dutena. Subiranotasun, ordezkartza edota lidergo transzendentetik gabeko demokrazia absolutura gertura gaitzakeen subjektua omen da hori.

---

## Etorkizunaz ari den historia

*Ostera, indigenek denborari buruz dituzten ikusmoldeetan, iraganak eta arbasoek goitik behera egituratzen dute orainaldia. Iragana eta orainaldia ez dira gauza bereziak, hortaz, bestelako etorkizun bat irudikatzerakoan, iraganari buruzko ulermenak berebiziko garrantzia du. Gure historia da etorkizuna. (Estes, 2019, 37-38 orr.)*

Agerikoa da, Estes liburuaren izenburutik bertatik, natibo amerikarren artean denboraren ulerkerak gurearen desberdina dela. Gure artean esan dezakegu, gutxi-gehiago, iragana bukatutzat jotzen dugula, iragana amaitzen den lekuan hasten dela orainaldia eta, oraina

---

<sup>5</sup> Natibo amerikarrak ez ezik, bestelako indigenak, erresistentzia-mugimenduak eta taldeak ere batu izan dira mugimendura. Estesek liburuan zehar kontatzen du nola, desberdintasunak desberdintasun, herri palestinarrekin, Black Lives Matter mugimendurekin, beste herrialdeetako indigenekin lankidetzan aritzeko gai izan ziren, identifikazio bat ematen zelako, azken batean, nazio kolonizatuen eta herri zapalduen artean, borroka partekatu bat zegoelako.

---

bukatzen denean, etorkizuna. Denbora kronologikoa eta lineala da gure galbahetik pasatzen denean. Horrek ez die iraganari eta etorkizunari garrantzirik kentzen, ez derrigorrez behintzat, baina segida horrek zentzua du gure buruetan. Hasierako aipuan ikusten denez, ordea, natibo amerikarren kasuan ez dirudi esanahi bera hartzen duenik denbora historikoak: iragana ez da bukatutako zerbait, orainaldian eta etorkizunean ere badago. Ez da irudikatzen orainaldirik edo etorkizunik iraganik gabe, batera eta lotuta doaz.

Iraganaren eta etorkizunaren arteko lotura kurioa ikusten da Mamu Dantzaren bisioan (Estes, 2019, 157-164). 1880ko hamarkadan Wovoka izeneko gizonak bisio bat izan zuen: hildako senideak eta bufaloak itzuli egingo ziren eta kolonoak, berriz, desagertu. Estesek dioenez, “[b]isioak ez ziren errealtateari ihes egiteko modu bat” (idem, 158 or.); “[o]roz gain, bisioek gogora ekartzen zuten bizitzak ez duela zertan beti halakoa izan, eta Mamu Dantzak gertakari bat iragartzen zuen, ez nolana hiko: Estatu Batuekiko harreman kolonialaren suntsipen erabatekoa” (idem, 159 or.).

Hau da, orainaldi kolonizatua baino desiragarriagoa zen iragan natiboa irudikatzean, orduko errealtate gordina bestelakoa izan zitekeela ikusten zuten indigenek. Beste modu batean esanda, eta atal honen izenburuari keinu eginez, historiaren kontakizun batek (bisioa) lagundu zuen erresistentzia-mugimenduen arrakastaren posibilitatea –eta etorkizun desiragarriago bat– irudikatzen.

Mamu Dantzaren eragina natibo askorengana iritsi zela dio Estesek, eta “erresistentzia-mugimendu bat zen aldetik”, hainbat taktika erabili zituztela mamu dantzariek: erreserbetako bizitza utzi zuten, haurrak eskolara eramateari ere utzi zioten, baita ingelesez hitz egiteari ere, erroldatzeari edo lanera eta mezetara joateari, erresistentzia-kanpalekuak sortu zituzten eta abar luze bat (Estes, 2019, 161 or.). Hurrengo orrietan kontaktzen ditu Estesek erresistentzia horiei jarraitu zioten errepresioa eta istiluak.

Guztiarekin ere, Mamu Dantzaren bisioa eta haren eragina adibide paradigmatico bat dira etorkizun desiragarriagoen alde eta iraganaren kontakizun batek inspiratuta borrokatzen diren erresistentzia-mugimenduenak.

---

Historiaren kontakizunez hausnartzea zuen helburu testu honek: zer esan nahi duen boteretik eraikitako kontakizunak –mitoaren kontakizunak, adibidez– eta zer erresistentziatik eraikitakoak –Hardten eta Negriren genealogiak, kasurako–. Baina zer gertatzen da erresistentziak zeri eutsi (*erresistitu*) ez duenean? Ba ote du Botere jainkozko bihurtzeko arriskurik genealogia alternatibo eta etorkizun desiragarriagoen aurrekari behar zuen horrek? Zer gertatzen da erresistentzia-mugimenduen Boterearekin? Hau da, ze historia kontaktzen du “garaile” irteten den erresistentzia-mugimenduak?

## BIBLIOGRAFIA

Azurmendi, J. (2018). Historia ez da ikusten, asmatu egiten da, *Beltzak juduak eta beste euskaldun batzuk* liburuan, 75-106. Donostia, Elkar.

Estes, N. (2019). *Gure historia da etorkizuna. Standing Rock vs Dakota Access oliobidea, eta indigenen erresistentziaren tradizio luzea*. Iruñea, Katakak.

Hardt, M., & Negri, A. (2000). *Empire*. Harvard University Press.

Hardt, M., & Negri, A. (2004). *Multitude. War and Democracy in the Age of Empire*. The Penguin Press.

Hardt, M., & Negri, A. (2012). *Declaration*. Argo-Navis.

Hardt, M., & Negri, A. (2017). *Assembly*. Oxford University Press.